

Pailazoak eta jolasak aipagai

Giro ona izan da aurtengo jaietan ▶ 6



Hainbat informatika enpresak ezagutu du Asteasuko eskolako proiektua

PROIEKTUA ▶ Tablet PC proiektua aurkeztu zuten udaletxean Pello Errota ikastetxeko arduradunek ▶ 4



Pello Errota herri eskolako Roberto Suberbiola IKT arduraduna eta Josune Eizmendi zuzendaria. GARAZI AZKUE



LEIRE MONTES

Ikasleek ibilaldi batean ezagutu dituzte zuhaitzak

TOLOSA ▶ Udal lorezainaren laguntzaz, zuhaitzen gerizpean ibili ziren; gaur, Aste Berdearen barruan, energiaren eguna ▶ 2

KIMETZ



GAZTE ARROPA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean KIMETZ ARROPA DENDAK oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu.
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ASTE BERDEA ▶

HERRIKO HAINBAT ZUHAITZ ▶

Ginkgo biloba. Gernikako Arbolako lorategietan bat dago; Zabalarretan ere aurki daitezke, eta Eskolapiotako lorategietan (Triangulo atzean). «Honen enborrak —Gernikako Arbolakoak— 2,80 metroko perimetroa du. Oso hosto berezia du, eta udazkenean galdu egiten du. Emearen fruituaren azalak oso usain txarra du, horregatik arra gehiago landatzen da; hau ere arra da», dio Jose Mari Arsuaga Udaleko lorezainak Zuhaitz honek oso ondo jasaten du kutsadura.

Magnolia grandiflora. «Hosto iraunkorreko zuhaitza da. Hostoak bi urte betetzen dituenen botatzen ditu, baina etengabe berriak sortzen ditu;

beraz, beti ditu hostoak. Loreek limoi usain antzekoa dute».

Zedroa. Zabalarretan, Gernikako Arbolan eta San Frantzisko-Pedro de Tolosa



Ginkgo biloba. LEIRE MONTES



Zedroa. LEIRE MONTES

bidegurutzean aurki daitezke. «Hiru mota daude: Atlasekoa, Libanokoa eta Himalayakoa.

Lehendabiziko biak ditugu Tolosan».

Haritza. «Hemen, Gernikako Arbolako lorategietan duguna, Gernikako arbolatik ekarria da».

Indigaztainondoa. Gernikako Arbolako lorategien atzealdean, anbulatorio parean, aurki daiteke bat. «Lore zuriz bete egiten da. Nor ez da jolastu txikitan indigaztainarekin...».

Ezkia. Platanoaren atzetik, herrian gehien dagoen zuhaitz mota da: 300 bat daude; lurren, Maxi Eroski inguruan... Ezki-ura egiteko erabil daiteke.

Platanoa. Oso ugariak dira herrian; San Fantzisko ibiltokia, besteak beste, beteta dago. Anbulategi aurrean dagoenak 35 metroko altuera du.

Zuhaitzen gerizpean

Aste Berdearen baitan, herriko zuhaitzak ezagutzeko ibilalditxoak egin zuten atzo gaztetxoek, biodibertsitatearen egunean; gaur, energia izango dute ardatz



Laskorain Ikastolako DBH 2ko hainbat ikasle, Jose Mari Arsuaga Udaleko lorezainarekin, atzo. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Zenbat urte ditu zuhaitz horrek? Eta hori, zer zuhaitz mota da? Zenbat neurtzen du?». Jose Mari Arsuaga Udaleko lorezainari jakinminnez galdetu zioten atzo Laskorain ikastolako DBH 2ko hainbat ikasle. Baita haren azalpenak adi-adi jarraitu ere. Herriko zuhaitzen gerizpean ibilalditxoak egin zuten guztiek, Aste Berdearen barruan.

Gernikako Arbolako lorategietan zuten hitzordua, eta arbola bakoitzeko ezaugarriak

azaldu zizkien lorezainak gazteei: «Garai batean aberatsen etxeak zeuden inguru hauetan. Kanpotik ekarritako zuhaitz mota ugari landatu zituzten haien lurretan. Etxe horiek desagertu baziren ere, arbolak oraindik hemen ditugu». Haren esanetan, «oso zuhaitz zaharrak» daude Tolosan: «Zabalarretan dauden bi zedroak dira zaharrenak. 140 urte izango dute, gutxi gorabehera».

Gernikako Arbolako lorategien atzealdera jarraitu zuen ibilbideak, gero San Frantziskora, Pedro de Tolosa kalerai-

no. Zuhaitzen garaiera eta enborearen perimetroa asmatzen entretenu ziren bidean. «Metro bateko garaieratik neurtuko dugu beti perimetroa», zioen Arsuagak. Harridura aurpegiarekin begiratzen zioten ikasle batzuk, adi ere bai, irribarretsu besteak. Eta kontent itzuli ziren ikastolara, «gauza berriak aurkitu» baitzituzten.

Biodibertsitatearen eguna zen atzokoa Aste Berdean. Gaur, energia izango dute ardatz; besteak beste, energia aurreztearen aldeko dekalogoak banatuko dituzte herrian.

ZER IKASI DUZU? ▶

OLATZ SAGASTUME
AMEZKETA

«Inoiz ez nintzen fijatu: oso zuhaitz altuak eta zahar-
rak daude herrian, eta era guz-
tietakoak. Harritu egin naiz».

FABIO ORUÇ
ORENDAIN

«Zuhaitz batzuk ezagutzen nituen, baina beste asko ez. Eta mota asko daude! Ibilaldia oso polita izan da».

INHAR ZUBELDIA
ABALTZISKETA

«Hainbeste urteko arbolak nola mantentzen diren eta zenbat mota dauden ikustea oso interesgarria izan da».

ARATZ RODRIGUEZ
TOLOSA

«Egunero ikusi arren, orain arte ez nuen erreparatu gauza askotan. Zuhaitz zahar asko daude, baina osasuntsu eta ondo zainduta».

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroiko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ lurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerik aldikaria: 30 07 32

▶ Tipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz. Amaroiz auzoa, 9

(Tolosa); 943 67 51 18. Larraia

M. I. Elbarren 95 (Leitza); 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Idaia. 687 41 00 22

anoeta-idaia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza-Idaia. 687 41 01 18.

leitza-idaia@tolosaldeko-hitza.info

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Bartzelonako Forum-era bidaia?

Hitzaren larunbateko alean irakurri ahal izan dut. Udalaren Gazteria Batzordeak Bartzelonako Forum 2004ra bidaia antolatu du. Zirkunstantziak baliatu nahi dut tamainako ekimenaren zenbait xehetasun emateko. Ondoren norbera bere buruaren jabe da nahi duena egiteko, libre, betiere, albokoaren askatasuna oztopatzen ez duen heinean, izan ere, hor bukatzen baita bakoitzarena. Hausnarke-ta eginda pena ematen dit gure gertueneko instituzio publikoetatik horrelako ekimen megalomanoak bultzatzea. Zaila da muntaia itzel eta esker-ga honen hitz gutxitako sintesia egitea, baina, tira, ikus ditzagun sikiera datu batzuk:

-Forum-ak 2.000 milioi euroko aurrekontua du. Horietatik 320 edukiak antolatzen. 1.740

inguru Barnako zonalde horretako hirigintza egitasmoak finantzatzeko. Nor da garaile? Betiko leloa, etxebizitza eta arazo sozialek hor darraite. Bestalde *lobby*, higiezin enpresa eta multinazionalak aterako dute horren guztiaren etekin ekonomikoa: ProCivisa, General Electric, La Caixa, Retevisión, Deutsche Telekom, besteak beste.

-Forum-a babesten duten 6 'bazkideak' honakook dira: Telefonica, Endesa, La Caixa, Toyota, El Corte Inglés eta Discovery. Laguntzaileen artean Iberia, Nestlé eta Indra (Espainiako arma fabrikatzaile eta saltzaile garrantzitsu hau segurtasun neurri elektronikoen guztien arduraduna da).

-Forum-a hiru ardatz nagusien inguruan antolatu da. 1-Kultur aniztasuna (non daude ordezkatutik La Mina auzoko ijitoak eta hirian baztertuta no-raezan dabilen etorkinak?). 2-Bakea (babesle nagusienetako Espainiako arma industria-

ko enpresa ezagun bat, Indra, Espainiako eta Amerikako Estatu Batuetako armadekin lotura estua duena). 3-Jasangarritasuna (Endesa da bazkideetako bat, Txileko maputxeak euren lurraldeetatik botatzen ari den enpresa elektriko bera; gainera, Greenpeace-ek ere sartu ditu gehiegikerien aurkako salaketak). Begirunea merezi duten terminoak arinkieraz erabiltzea, garrantziaz erantzeta.

-Forum-eko eztabaidagunetan bost gai hauek faltako dira: Palestina, Yugoslavia ohia, Irak, Afganistan eta Euskal Herria. Ez al diozue usain txarrik hartzen? Kasualitatea ote?

-Forum-ean sekulako kontzertuak ikusi ahal izango dira: Khaled, Manu Dibango, Carlinhos Brown, Mystyc Revelation of Rastafari edo Cesaria Evora, baina, bitartean, sabela betetzeko xoxa bila dabilen kale-artistez 'garbitzen' daramatzate azken urteok hiriko karrika eta metro estazioak, horretarako Guardia Urbana eta Polizia Na-

zionala erabiliz. Batzuei zero askoz betetako taloiak, besteei egurra. Eta La Casa de la Muntanya bezalako espazio sozialen hustutzea, ideia alternatiboak zapuztu asmoz interes urbanistikoan alde (antzekorik ez gure inguruan?).

-Forum-ean parte-hartzaile ezagunak daude. Baina ukatu direnak ere bai (gero eta gehiago aurrera doan heinean), besteak beste, José Bové, Naomi Klein, Noam Chomsky, Jose Saramago edo Günter Grass. Halaber, atzera egin dute SOS Racisme, hainbat GKE, gizarte mugimenduak, FAVB (Bartzelonako Auzo Elkarten Federazioa)...

-Hilabeteotarako Bartzelonako kale, aire eta lurrazpia kontrol militar eta polizialetan bete dute. *No comment, Armagideon.*

Bere alde positiboak izango ditu ditxosozko Forum honek. Ados. Baina munstro honen atzean hirigintzako egitasmo garbiak daude, eta nahikoa izan dute, erakargarri gisa, itxurake-

ria eta fatxadismozko neurriko traje bat egitea. Esaterako, Ming dinastiako terrakotaz egindako gudari txinatarrak ekartzea, 'kultura' hitzaren nolanahiko erabilpen zinikoa edo proiektuari 'Forum' izena jartzea, Porto Alegre-erikiko zentzubako alderaketa hutsal eta merkea egin nahian.

Ez naiz gehiago luzatuko. Soilik azken galdera: jakin nahi du zue zein izan zen Forum honen antolatzaileen iritzia Irakeko inbasioa (edo gerra esan behar da?) salatzen eskatu zitzaizenean? Benetan lotsagarria.

Tolosako Gazteria Batzordeak gonbidatu zaituzte hara joatea. Ahots umil honek, antzeko handinahikeriak ez bultzatzeko ideiarekin, hausnartzea eta geure buruarekin kritikoagoak izatera gonbidatu nahi zaituzte (baita Udala bera ere). Aurrera begira, arestian aipatu lez, norbera jabe da nahi duena egiteko. Nik zer egingo dudan argi daukat hasiera-hasieratik.

FERNANDO ROJO ▶ TOLOSA

KULTURA ▶

Sanjoanetakoak heldu baino lehen, ekitaldi aberasgarriak herrian

Kultur Etxeko tailerretako ikasleek ikasturtean landutakoak erakutsiko dituzte; Ainhua Artetak errezitaldia eskainiko du

IRATXE ETXEBESTE

San Joan jaiak izango dira, ez-bairik gabe, ekaineko kultur jardueren errege. Ordu arte Kultur Etxeko tailerretako ikasleek hartuko dute lekukoa, eta bestelakoak ez dira faltako. Hona hemen hileko ekitaldiak:

AZOKA

Berezia. Sanjoanetako Azoka Berezia hilaren 19an izango da. Produktuen erakusketa eta salmenta, herriko lore eta landare-zainek, merkatariek, ostalariak eta artisauek eskainia. Trianguloan, San Frantzisko ibiltokian, Berdura Plazan... herriko gune ezberdinetan jarriko dituzte postuak egun horretan, goizetik eguerdira.

ERAKUSKETAK

Anjel Cuervo. Abenturazale eta bidaiari tolosarraren ar-

gazki erakusketa Aranburu Jauregian dago hilaren 12a arte. Astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, arratsaldero da zabalik 17:30etik 20:30era. **Faustino Aranzabal.** Pintura erakusketa uztailaren 3a arte izango da ikusgai Aranburu Jauregian: astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, egunero, 17:30etik 20:30era.

Kultur tailerrak. Ikasturtean zehar, Kultur Etxeko tailerretan parte hartu dutenek egindako lanak jarriko dituzte ikusgai hilaren 18tik uztailaren 3ra Aranburu Jauregian. Pintura, eskututa, keramika... Askotariko lanak izango dira; astelehenetan eta jaiegunetan ez, beste egunetan ikusi ahal izango da, 17:30etik 20:30era.

IKUSKIZUNAK

Antzerkia. Kultur Etxeko Tic-Tac antzerki tailerreko ikasleek emanaldia hilaren 11n

izango da, 22:30etik aurrera, Leidor aretoan.

Dantza. Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleek emanaldia. Hilaren 19an, 16:30ean Leidor aretoan.

Literatura. Uxola literatur sariaren banaketa ekitaldia eta Gazteen Poesia errezitaldia. Hilaren 21ean, astelehenarekin, 18:00etan, Leidor aretoan.

JARDUNALDIK

Arrauna. Arraunari buruzko jardunaldia eskainiko du Josu Iztueta abenturazale tolosarrak hilaren 14tik 17ra Leidor aretoan.



Sanjoanek izango dira ekaineko ekitaldien errege. A. ELZUAIEN

KULTUR ASTEA

Irazki. Irazki elkarteak bere 1. urtemuga ospatzeko antolatu duen Kultur Astea hilaren 6an, igandean, amaituko da. Kultur Etxean izango dira ordua arteko ekintza guztiak.

LIBURU AURKEZPEN


Tolosari buruz. Juan Garmendia tolosarrak idatzi duen *Tolosako berri zaharrak* libururen aurkezpena egingo dute hilaren 22an, Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

MUSIKA

Ainhua Arteta. Tolosako Zezen-plazaren mendeurrenako amaiera ekitaldi gisa, Ainhua Arteta soprano tolosarrak emanaldia eskainiko du hilaren 16an Leidorren. Ainhua Zubillagaren laguntza izango du Artetak errezitaldian, eta 20:00etan hasiko da.

SANJOANAK

Jaiak. Ekainaren 23tik 27ra izango dira aurreko herriko jai nagusiak.



TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *Leider Zinemaren* astebukaera honetan 'EL CASTIGADOR' filma ikusteko bi sarreraren irabazlea: **Mª Rosario Iraola (Leaburu)**

ASTEASU ▶ HEZKUNTZA



Pello Errotako, HPko, Intel-eko, Microsoft-eko eta Asteasuko Udaleko ordezkariak. G. AZKUE

Tablet PC proiektua aurkeztu zuten Asteasuko udaletxean

HP, Intel eta Microsoft-eko ordezkariak gerturatu ziren Pello Errota ikastetxera proiektuaren berri gertutik ikustera

GARAZI AZKUE

Iñaki Amenabar Asteasuko alkatea; Salvador Cayon, HP-ko marketing zuzendaria; Jesus Maximoff, Intel-eko ordezkaria; Rosa Maria Garcia Microsoft Iberica-ko kontseilari delegatua eta Pello Errota ikastetxeko ordezkariak bildu ziren atzo Asteasuko udaletxeko aretoan, jada errealitatea den Tablet PC proiektua ofizialki aurkezteko eta ezagutarazteko asmotan.

Asteasuko Pello Errota ikastetxeko 4. mailako 12 haurrek, urte hasieratik, ordenagailu bana dute ikasketa orduetan erabiltzeko. Hala ere, ez dira ordenagailu arruntak, proiektu orokor baten barruan kokatzen diren ordenagailu bereziak baizik.

Proiektu honen bultzatzaileak dira HP, Intel eta Microsoft hiru enpresa handiak. Madriletik etorritako hiru ordezkariak teknologia berrien garrantzia azpimarratu zuten, «heziketa

moduak aldatzen ari gara, lehen tiza eta arbela zeuden lekuan modu digitala ezarri dugu, mundu digitalean sartzen ari gara».

Bertatik bertara

Proiektuaren bultzatzaileek bukatu bezain pronto, benetako protagonistek hartu zuten hitza, Pello Errota ikastetxeko ordezkariak: Josune Eizmendi ikastetxeko zuzendaria eta Roberto Suberbiola, ikastetxeko IKT arduraduna eta Tablet PC ordenagailuak erabiltzen dituzten haurren tutorea agertu ziren jendaurrean.

Hauak, zehazki proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten eta esperientzia nola garatu den plazaratu zuten. Eizmendiren esanetan, «gaur eguneko ikastetxe bat eskaintzen saiatzen gara; horretarako, gizarteko aldatetako gureganatu behar ditugu».

Roberto Suberbiolak, Astea-

suko 12 ikasleek izan duten esperientzia azaldu zuten. Ikasleak urtarrilan hasi ziren ordenagailuekin lanean, «berehala egokitu ziren, eta batzuk irakasleen aurretik doaz», aipatu zuten tutoreak. Tablet PC hauekin, beste ikastetxeetan koordenatu egin ohi dutena egin dezakete ordenagailuetan.

Suberbiolak aipatu zuenez, esperientzia honen abantailen artean, besteak beste, ordenagailuan eskuz idazteko aukera dago; bestalde, Interneteko konexioa edozein momentutan izateko aukera dute 4. mailako ikasleek. Eta, mota guztietako baliabide informatikoen erabilera ahalbideratzen dute haurrek erabiltzen dituzten ordenagailuek.

Aurkezpenak egin ondoren, ordezkari guztiak Pello Errota ikastetxera joan ziren proiektua bertatik bertara ezagutu ahal izateko eta haurrek ordenagailuekin nola lan egiten duten ikusi ahal izateko.

GUTUN@K ▶



Anoetako Gazte Asanblada festa alternatiboen alde!

Anoetako Gazte Asanblada ez da ideia politiko baten pean biltzen den talde bat; hori argi dago. Asanblada izaera ezberdineko gazte askok osatzen dugu, denok bi gauza ditugularik komunean; bata, gazteak izatea eta bigarrena, gazteok eta orohar gizarteko beste hainbat sektorek bizi duten egoeraren inguruan hausnartu eta lanketa bat egiteko gogoia. Herriari ekarpen sozial bat egiteaz ahaztu gabe, hau da, era guztietako ekintzak antolatzeaz ahaztu gabe.

Lehen aipatu moduan, A.G.A. gazteok eta orokorren gizarteak pairatzen dituen problematikak landu eta hau konpontzeko bere ekarpena egiten saiatzen da. Hor dauka adibidez emakumeen eskubideen alde antolatutako ekintzak, presoaren eskubideen alde antolatutako asteburua eta gazteok pairatzen ditugun bizi baldintza eta lan baldintza tamalgarrien inguruan eginiko lana, adibidez batzuk jartzearen.

Azken urtebete honetan, oso gertu, herrian bertan, gazte asanbladako kideontzat larriak diren hainbat egoera eman dira, hala nola, herritarrek bozka bidez aukeraturakoak bizkar ematea, herriko hainbat eragilek eginiko eskakizunei kasurik ez egitea, ... Hitz gutxitan esanda, anoetarrok ditugun hainbat eskubide ez dituzte errespetatzen Udalak. Gure ustez eskubide zapalketa honek gizartea zatitu egiten du; hau da, ideia jakin batzuk dituztenak eskubideak dituzte eta hauek bezala pentsatzen ez dutenak ez dituzte hainbat eskubide. Garbi esanda, pentsatzen duten bezala pentsatzeagatik anoetarren zati handi bat baztertu egiten da.

Anoetako festak datozela eta beste herriko hainbat eragileekin batera hausnarketa bat burutu dugu, herriak bizi duen egoeraren inguruan eta ados jarri gara anoetarren zati handi bat baztertzeko dela esateko garaian. Honen ondorioz aurtengo festak ez direla denontzat izango iritzi dugu eta hau ikusirik udaletik kanpo hainbat ekintza antolatzea erabaki genuen, horrela festa alternatiboak antolatu. Ideia honen bati egin genuen Anoetako Gazte Asanblada-

ko kideok eta festa alternatiboen antolakuntzan zuzenki parte hartzeaz gain urtero egin ohi dugun gazteen bazkaria eta dantza Udalak antolatutako festetako egitarauan ez azaltzea erabaki dugu; bai aldiz festa alternatiboen egitarauan.

Festa alternatiboen batzordeak antolatutako ekintzak aurrera eramateko lekua eskatera egin zion Udalari eta honek emaniko debekuaurrean gu, festa alternatiboen gunea eta txosna jartzeko asmoa duten beste bost eragileak idiaikaitz auzora joateko egin duten bide berrira (tren estazio ondora) joateko beste erremediorik ez dugu izan, debekatua dugularik gure ekintzak aurrera eramateko herriko plaza erabiltzea.

Egoera honen aurrean Anoetako Gazte Asanbladako kideok bi arazo ikusten ditugu:

1. AGAko kideok urtero burutu ohi dugun eta ikusmin handia sortzen duen dantza egiteko ez dugula nahiko espazio izango.

2. AGA autogestioaren bidez aurrera doan eragilea izanik, festetan karpas jarriaz lortzen dugun dirua da dugun diru iturri garrantzitsua urte osoan antolatzen ditugun ekintzek duten gastu ekonomikoari aurre egiteko. Gainera jakinik aurrean jende mordo inguratuko dela aukera bikaina dugu dirua lortzeko. Baina noski, kale estu horretan 10x15 karpas eta bost txosna jarri gero segituan gainetako egingo du kale honek horrek asko baldintzatuko duelarik lortu genezakeen diru kopurua.

Arrazoi hauek medio, Anoetako Gazte Asanbladako kideon ustez Udalaren erabakiak zentzurik eta funtsik ez izateaz gain, urtean burutzeko ditugun ekintzak erabat baldintzatutako geratuko dira, horrek Anoeta bezalako herri bati ekar diezazkion ondorioak ahaztu gabe. Gainera larria iruditzen zaigu hainbeste anoetarrek parte hartu behar duten ekintzak tajuzko arrazoirik gabe plazatik aldentzea.

Egoera horrela egonik, haur, gazte, zein gazte izandako festa alternatiboen gunea azaldu eta Udaletik antolatutako diren jaietan parte hartzea gonbidatu nahi dugu. Denon artean bazterketarik gabeko eta berdintasunean oinarritutako Anoeta baten alde pausoa emateko.

ANOETAKO GAZTE
ASANBLADA ▶ ANOETA

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ANOETA ▶ AISIALDIA

Kirol jardueretan izena emateko azken eguna, bihar

Udaletxean zein Ikastolan eman dezakete izena gaztetxoek; helduek, berriz, udaletxera deitu beharko dute

OLAIA ESKITXABEL

Udarara begira kirol jardueren eskaintza zabala egin du aurren ere Anoetako Udalak gaztetxoek zein helduei begira. Uztailaren eta abuztuaren egiteko jarduerak proposatzen dira.

1988-89 eta 1994-95 ikasturte bitartean jaio direnei zuzenduta daude horietako asko. Kirol jarduerak desberdinak, txanda eta ordutegi desberdinak... izango dituzte aukeran.

Piraguisismoan, hondartzako boleibolea, aerobikean, hipikan, eskaladan, surfean, teniseari eta xakean trebatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Hamazazpi urtetik gorakoentzat ere hainbat jarduerak antolatuko dira: Eskalada eta piraguisismoa.

Bihar, azken eguna

Bihar izango da Uda kanpaina-



Xakea, udarako eskaintzen den jardueretako bat. O.ESKITXABEL

ren baitan eskaintzen diren kirol jardueretan izena emateko azken eguna.

Helduek udaletxera deituz (943 65 12 00) eman dezakete izena; gaztetxoek udaletxean

edota Ikastolan. Udaletxera 09:00etatik 13:00etara bitartean deitu dezakete.

Jardueretako dirua aurretik abisatu gabe ez sartzea eskatu dute udaletxetik.

UDA KANPAINA ▶ KIROL JARDUEREN ESKAINTZA

1988-89 ETA 1994-95 BITARTEAN JAIOTAKOAK

Piraguisismoa.

Txarama. Ekainaren 21etik 26ra. Goizez. 15 euro.
Kontxako hondartza. Ekainaren 21etik uztailaren 2ra, uztailaren 5etik 16ra, 19tik 30era, abuztuaren 2tik 13ra eta 16tik 27ra. Ordutegiak goizez eta arratsalde. 15 euro.

Hondartzako boleibola.

Txandak. Uztailaren 5etik 16ra eta 19tik 30era.
Ordutegia. Bi aste ikastaroa; astelehenetik ostiralera. Ordubete egun bakoitzean. Goizez edo arratsalde. Ondarretako hondartza.
Prezioa. 10 euro.

Aerobik txiki.

Txandak. Ekainaren 28tik uztailaren 30era.
Ordutegia. Astelehenetan, asteazkenetan eta ostialetan. Zazpi urte bitartekoak: 11:30etik 12:30era. 12 urtetik

gorakoak: 10:30-11:30. Ibarrako kiroldegian.
Prezioa. 10 euro.

Hipika.

Txandak. Abuztuaren 3tik 18ra eta 17tik 31ra.
Ordutegia. Mailaren arabera erabakiko da. Zizurkilan.
Prezioa. 25 euro.

Eskalada.

Txandak. Uztailaren; bederatzi eguneko ikastaroa.
Ordutegia. 17:00etik 19:00etara. Ibarrako kiroldegian.
Prezioa. 10 euro

Surf.

Txandak. Ekainaren 21etik uztailaren 2ra, uztailaren 5etik 16ra, 19tik 30era, abuztuaren 2tik 13ra eta 16tik 27ra.
Ordutegia. Goizez edo arratsalde. Zurriolako hondartza.
Prezioa. 15 euro.

Tenisa.

Txandak. Uztailaren 5etik

16ra, 19tik 30era edota abuztuaren 2tik 13ra.
Ordutegia. 09:00-10:00, 10:00-11:00, 11:00-12:00.
Prezioa. 10 euro.

Xakea.

Txandak. Uztailaren 5etik 16ra, 19tik 30era eta abuztuaren 16tik 27ra.
Ordutegia. Partaideen artean zehaztuko da. Anoetan.
Prezioa. 10 euro.

17 URTETIK GORAKOAK

Piraguisismoa.

Txaramako presan edo Kontxako hondartzan. Datak eta ordutegiak eskaeraren arabera zehaztuko antolatuko dira.
Prezioa. 15 euro.

Eskalada.

Txandak. Datak eta ordutegiak eskaeraren arabera zehaztuko antolatuko dira. Anoetan, Zizurkilan, Ibarran eta inguruko harkaitzetan.
Prezioa. 10 euro.

BIDEGOIAN ▶

Partida erabakiorrak, Bidanian

HITZA txapelketako partidak jokatuko dituzte kadeteek Bidaniako pilotalekuan. Eskuz banaka, lau t'erdian jokatuko dute. Partida erabakiorrak izango dira, jokatuko diren bi partida, Legarreta-Otxandorena eta Galarra-Villaro, finalaurdenetako partidak baitira. Beste bi partidetan Yeregi eta Iturrioz eta Telletxea eta Lopez de Zubiria ariko dira norgehiagokan. Partidak 19:00etan hasiko dira.

BALIARRAIN ▶

UEMA egunera joateko izen-ematea zabalik

Azkainen izango da datorren ekainaren 19an UEMA eguna. Udalak autobusa antolatu du bertara joateko asmoa dutenentzat; bidaia doakoa izango da. Datorren asteazkenean, ekainaren 9an, herriarrei deituko zaie udaletxetik honen berri emanaz; interesatuek bitarteko egunetan udaletxeko telefono zenbakira deituz (943 88 90 03) ere eman dezake autobuserako izena.

IKAZTEGIETA ▶



Ezkerretik eskuinera, Uxue Larrea eta Alba Garmendia. O.ESKITXABEL

Bi ikaztegietar Euskadiko Txapelketan

Alebin mailan, Euskadiko Igeriketa Txapelketan parte hartu zuten Uxue Larrea eta Alba Garmendia ikaztegietarrek pasa den asteburuan. Ordiziako taldearen ordezkari izan ziren Ikaztegietako eskolako seigarren mailako ikasle horiek. Alba Garmendiak hiru domina lortu zituen; tximeleta estiloen 200 eta 100 metro eta krolean beste 100 egin zituen. Larreak, berriz, tximeletan 100 eta 200 metro eta krolean 400; seigarren eta hamabostgarren postuak lortu zituen azken honek.



Loatzo
musika
eskola

MATRIKULAZIOA
04-05
IKASTURTEA

Musikaz gozatzera anima zaitez!

Epea: ekainak 1-7
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atkulondan	

ESKAINTZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

HITZA

eskualdeko plaza

- Interesgarria
- Zabala
- Parte-hartzailea
- Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beherapenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

► Harpidetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leizaldeko

hitza

TXARAMA ► JAIAK

Pailazoen emanaldia eta igandeko jolasak aipatzekoak izan dira

Igandean amaitutako herriko jaietako parte-hartzea ez da agian oso handia izan, baina giro ona izan da nagusi



Larunbatean plazan egindako Kiki eta Moko pailazoen emanaldia arrakastatsua suertatu zen. O. ESKITXABEL

DANI GIBELALDE

Igandean amaitu ziren Txaramako herri jaietan ekitaldi ugari izan dira. Besteak beste, larunbat arratsaldean Kiki eta Moko pailazoen emanaldiak arrakasta izan zuen, haur asko hurbildu zirelako, eta gogotik gozatu ahal izan zutelako.

Ekitaldi horiekin antolatzaileek asmatu egin dutela esan daiteke, haurren parte-hartzea bultzatu zutelako pailazoei, baita lortu ere. Besteak beste, denak altxarazi zituzten dantzatzeko eta *San Fermin txiki* batean aritzeko. Aurtengo jaietako parte-hartzea ez da agian aurreko urtetakoaren parekoa izan, baina bildutakoaren artean giro ona nabarmendu da.

Ostiralean hasi ziren jaiak, gazte afariarekin; 25 bat lagun bildu ziren. Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia izan zen goizaldera arte. Larunbat goizeko tortila patata txapelketan lau lehiakide izan ziren elkarrean. Tortilak egin eta dastatu ondoren, guztien artean erabaki zituzten irabazleak.

Arratsaldeko talo jate eta sagardo dastaketan ere herriko zazpi bat lagun aritu ziren taloak egiten, eta hurbildutakoek

jan-edanaz gozatzeko aukera izan zuten. Gauean musika izan zen: lehenbizi trikitilariak, DJ festa ondoren.

Igande goizeko toka txapelketan jende ugari animatu zen parte hartzera (20 bat lagun). Ondorengo herri bazkarian, berriz, ez zen aurreko urtetako adina jende bildu.

Jolasetan, haur eta heldu dezente aritu ziren. Aulki jolasean denak elkarrekin aritu ziren, gainerakoetan bereizita: batetik haurrak bestetik helduak. Zaku lasterketa, koxkola apustua... izan ziren egin zituzten jolasetako batzuk.

IBARRA ► KULTURA

Irudi txikiak argazki rally-an izena emateko azken eguna izango da gaur

6 eta 16 urte bitartekoentzat; izen-ematea, ludotekan edo Kultur Etxean

D. GIBELALDE

Irudi txikiak argazki rally-an izena emateko azken eguna da gaur, Txontxo ludotekan edo Kultur Etxean. Adinaren arabera talde desberdinak egingo dira; 6-16 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Era berean, derrigorrez-

koa da parte-hartzaileak adin talde bereko hiru kidez osatutako taldeetan inskribatzea (6-8, 9-10, 11-12, 13-14, eta 15-16).

Argazki rally-a ostiralean egingo dute 18:00etatik 20:00etara. Taldeek 17:45erako egon beharko dute San Bartolome plazan. 12 argazkietako argazki-filma emango zaie eta

bi ordutan egin beharko dute lana. Partaideek argazki kamerara eraman beharko dute. Ekainaren 10ean, egindako argazkietatik lauzpabost aukeratu dituzte eta Kultur Etxean jarriko den panel bat osatu beharko dute. Horretarako materiala Txontxo ludotekan eskuratu ahal izango da.

LEITZA ▶ UDALA



Erleta eskolako obrak egiteko diru laguntza eskaria onartu zen. JAIONE ASTIBIA

Eskolako obretarako diru laguntza eskaria onartu zen batzarrean

Larrain HPak ingurumenaren defentsa eginez eta 'apartheid' politikoa salatuz aurkeztu zituen bi mozioak atzera

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean udaletxean burutu zen batzarrean, Larraineko ordezkariak jendartearen eta Aralar, EA eta UPNkoak mahaian zirela, besteak beste Erleta eskolako obrak egiteko diru laguntza eskaria egitea onartu zuten mahaian, UPNk kontrako bozka eman bazuen ere.

Eskaera alde batetik aroztze-gi metalikorako egiten dute, bertako hainbat ateka aldatu asmo dituztelako. Bestalde gimnasioaren atzeko pareta-aren konponketarako ere bideratuko da eskaria eta baita umeen parkearen birmoldaketarako ere. Azken puntu hau izan zen desadostasunaren

arrazoia, parkea eskola eremuaren sartzeara egokia iruditzen ez zitzaielako eta aurkeztekoak diren planoetan irudikatzen den bidea egiteko, parkeari berari zati bat kentzen omen zaiolako.

Bestalde, Irusuko etxearen salmentaz ere aritu ziren eztabaidan, enkantea egin ahal izateko baldintza-plegua onartze-koa baitzuten. Baina, bere halaxe gelditu zen gaia, mahai gainean, baldintzetan adostasunik lortu ez zutelako.

Hirigintzako eta herri lurren inguruko beste hainbat partikularren puntuez gain, hiru mozio zituzten mahai gainean. Bata, onartu zena, haur eskolei buruzkoa zen: 0-3 urte bitarte-

ko hezkuntzaz Nafarroako Gobernua kargu egin dadin eskatzen zena.

Mozioen aurka

Beste biak Larrainek aurkeztu zituzten: lehendabizikoa garapen jasangarriaren aldeko adierazpena egiten zen eta bigarrenean, urte beteko «Apartheid» politikoa salaketa egiten zen, pausoak emateko eskaria eginez. Baina ala biei ezezko erantzuna eman zitzaizen mahaik. Aipatu behar da, hauek tratatzeko garaian eztabaida gogorak izan zirela, batez ere Larraineko kideek hitza hartu izan zutenean eta mahai gainean hainbat kideren aldetik.

LEITZA ▶

Torreko boletoen zenbaki sarituak atera dira

Igandean bertan, Torrearen elkarteko boletoen zenbaki saridunak atera ziren. Lehendabizikoa saria, axuria eta gazta bat, 1.076 zenbakiarentzat izan da; Bigarren saria berriz, 543 zenbakiak eta baserriko oilaskoa, ezta eta baserriko arraultza dozena bat jasoko ditu. Sariak jasotzeko epea astebetekoa da.

LEITZA ▶

Larunbatean EHNAren tramitazioa

Larunbat honetan, ekainak 5, goizeko 11:00etan hasi eta 14:00ak bitarte, EHNAren tramitazioa egingen da udaletxeko lehendabiziko solairuan dagoen aretoan. Eskaera egiteko, errolda-agiria aurkeztu behar da eta karneterako hiru argazki berdin eta berri. Adin txikiek, bera ageri den famili liburuako orriaren fotokopia bat ere eraman behar dute. Tramitazioa egiteagatik 15 euro ordaindu behar dira.

LEITZA ▶

DNI egitera ostegunean etorriko dira

Goizeko 9:00etatik 11:00ak bitartean, udaletxeko lehendabiziko solairuko aretoan ariko dira horretan. Berritu nahi izanez gero, zaharra itzuli eta bi argazki eraman behar dira. Galdutakoak hiru eraman behar dituzte. Zuzenketaren bat egitekotan, frogagarria eraman behar da ere.

LEITZA ▶

'Plazaola'-rako idatziak eta azal lehiaketa

Idatziak nahiz azaleko irudiak aurkezteko epeak irekita daude

J. ASTIBIA

Aurrera elkarteak jakitera eman duenez, irekita daude Plazaola aldizkarirako idatziak eta azaleko irudiak aurkezteko epea. Bientzat muga ekainaren 25a da.

Idatziak

Alde batetik, urtero, festetako egitarauarekin batera argitaratzen den aldizkari horretan, Plazaolan, lanetan bat argitaratu nahi izanez gero, orain da aukera. Kontatzeko zerbaite, gertaerak, herriko historia eta istorioak, poemak, bertsoak, kritikak... edozein motatako idatziak aurkezten omen daitezke. Baldintza bakarra idatziak izen abizenekin bidaltzea da eta Aurrera elkartera, nahiz eta gero, publikatzerakoan, hala nahi izanez gero behinik behin, izengoitia ere erabili omen daiteke.

Azaleko lehiaketa

Bestalde, aldizkariako azalaren lehiaketaren gaia Leitzako festak dira eta leitzarrek bakarrik hartu dezakete parte, bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzakeelarik. Lanak ez dira sinatu behar, atzekaldean izenbururen bat edo izengoitiren bat jarri eta aparteko sobre itxi batera sartu izen-abizenak.

Lanen ezaugarriak eta, lehiaketaren oinarritan ezarritako daude.

Aurrerako sei bazkidek osatutako epai-mahaia harkotako du erabakia. 16 urtez behinko eta zaharragoi bi sari banatuko dizkiete abuztuaren 11ean.

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Etxebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.

Anoeta. 370 m²-ko 2 pabiloi modulotan salgai, berriak.

Tolosa. Etxe abikia. 180m², lau gela, bainugela eta komunak. Altzariz hornitutako sukaldaria.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²ko etxebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldaria eta bainugelarekin. Erabat kanpalderra.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garaje ibia salgai. 16m²-koa.

Ibarra. 85 m²ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua. Kanpalderra.

Ibarra. 85 m²ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariz hornitua. 198.335 euro.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²ko apartamentu berritua, erabat kanpalderra. 234.400 euro.

Segura. 2 etxebizitza guztiz berrituak, 60 eta 90 m²-koak.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta jardina behetako solairuan.

Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajea eta trastelekua.

Irura. Behe solairuko etxebizitza, jardinarekin.

Jatetxea Hernialden. Beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daiteke.

Aia. Baserria salgai, bi solairuko, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloiak salgai. Eraikuntza berrikoak.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garbiarekin.

Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloi berriak salgai. Estreinatzeko.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Matxinbenta. Berritu beharreko lau solairuko etxebizitza.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 2a, asteazkena ▶ II. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroea

17

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

17

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

17

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

17

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

17

hotzena

12

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albizur, Alegia, Alkiza, Alzo,
Añezeta, Arantzeta, Balaran, Berastegi, Elduain, Hernialde,
Ibarr, Iruia, Lantzi, Leizor, Lizartza, Orendain, Orreaga,
Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurraltzak

Kultura Saila

San Juanak

San Juanak

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46



Maria Carmen Gorbearen margolanak Saikin tabernan

TOLOSA ▶ Hilabete osoan zehar ikus ahal izango dira Tolosako Saikin kafetegian Maria Carmen Gorbea margolari donostiarraren lanak. Paisajeak, erretratoak, bodegoiak, loreak eta bestelako gaiak erabili ditu artistak bere koadroetan. Guztira 11 koadro dira tabernako paretetan zintzilik jarri dituenak, bertako bezeroek, zerbait hartzen ari diren bitartean, ikus ditzaten eta —gustatu eta hala nahi ezkerro— eros ditzaten, salgai baitaude erakusketan jarritako obra guztiak. Herriko beste taberna batzuetan bezala, hilerio aldatzen dute erakusketa Saikinen. JOXEMI SAIZAR

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. 7 *gezur txiki* ikuskizuna Ramon Agirre eta Joserra Senperenak. Etzi, ostirala, 22:00etan izango da Kultur Etxean

Belauntza. Iker eta Eneko

Pouren *Silbergeier. Eskaladan urte bikaina* diapositiba emanaldia Kultur Etxean etzi, ostirala, 20:00etan.

Berastegi. Petti bakarlari nafarrak emanaldi akustikoa eskainiko du etzi, ostirala, 22:30ean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosa. Kontseiluak *Hizkuntz*

eskubideak, denon konpromisoa leloarekin larunbaterako deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea: 19:00etatik 21:00etara Galtzaundin, ostirala arte, 9 eurotan (bazkideek 6 euro). **Tolosa.** Koadrila Egunerako

bilera Kultur Etxean 20:00etan. Koadrila guztiak daude deituta.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalezen lanak Jubilatuen Tabernan.
Tolosa. Faustino Aranzabalaren margoak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Angel Cuerdoren argazkiak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Conchi Hildagoren margolanak Eroskiko tabernan.

HITZALDIAK

Tolosa. Mahai-ingurua. *Inmigrazioa Euskal Herrian: ezaugarri soziologikoak eta zailtasunak.* Partaideak: Agustin Unzuurrungaga (SOS Arrazakeria), Begoña Petxarroman (Farapi).
Moderatzailea: Marcos Flores (Herri Irratiko *Hitza* *dugu* saiokoa eta Adiskidetuak elkarteak kidea). Kultur Etxean 20:00etan. Irakzi kulturazindun elkarteak antolatuta.
Tolosa. Javier Bartolome Banco

Atlanticozuzendariak kreditu eskaeren inguruko azalpenak emango ditu Kultur Etxean 20:00etan. Gazte Guneak antolatuta.

Tolosa. *Hizkuntz eskubideak eta inmigrazioa.* Juan Inazio Hartsuaga Behatokiko zuzendaria. Kultur Etxean bihar 20:00etan.

Tolosa. Maider Urkizu abokatuak erregimen zibil ezberdinen inguruan informazioa eskainiko du. Kultur Etxean bihar 20:00etan.

Tolosa. *Miloi bat kilometro, beste kulturekiko bilaketa eta gerturaketa.* Josu Iztueta Tolosaldeko etorkinekin hizketan. Kultur Etxean etzi, ostirala, 20:00etan.

ZINEMA

Alegia. *Mon oncle* filma eskainiko dute 21:30ean Gaztebean. Jacques Tati da filma frantziar honetako zuzendaria
Tolosa. *El castigador* filma 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza... argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

5 urte-5 muxu. Gora pipertxoak!!! Gero arte.



URTE ASKOAN

Irantzu Tolosa (Tolosa). Zorionak osaba losu eta ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Alain Ugartemendia Goikoetxea (Elduain). Zorionak familiaren partetik, bereziki aitona-amonen partetik.



URTE ASKOAN

Mikel Sagastibeltza Egies (Leizua). Gaur 8 urte beteiko ditu. Egun on bat pasa eta muu handi bat. Bere familiak.



URTE ASKOAN

Maria Iraola (Aduna). Zorionak amona, eta segi bizkor. Adunako biloben partetik.

press to kalitatezko garbiketa azkarrak

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK:
JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI

ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77